

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

#### **27/2019 Foru Agindua, abuztuaren 12koa, baimentzen duena Raket Sáez de Cámara Aguirre andrearen behin-behineko izendapena, Zigoitiko Udaleko idazkari lanpostua bete dezan**

Zigoitiko Udalak atal honi jakinarazi dio aldi baterako izendapen baten beharra daukala, oporretan Mariló Suárez Rodríguez idazkaria ordezkatzeko.

Horregatik, proposatzen du Raket Sáez de Cámara Aguirre udal horretako funtzionarioaren behin-behineko izendapena.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Raket Sáez de Cámara Aguirre Zigoitiko Udaleko behin-behineko idazkari izendatzea, eginkizun horietan jardun dezan 2019ko abuztuaren 5etik irailaren 1era (biak barne), titularra ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Izendapena aurreko apartatuan aipatutako eperako bakarrik izango da.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Zigoitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta berau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 12a

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

*IRMA BASTERRA UGARRIZA*

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

*IÑAKI GUILLERNA SÁENZ*